Tratamenduaren Planifikazioa /Planificación del tratamiento

Kirurgia Anbulatorio Nagusia/Cirugía Mayor Ambulatoria

Pazientea/Paciente: ANALGESIA S

ARABA ESIKO FARMAZIA ZERBITZUA /SERVICIO FARMACIA OSI ARABA

## Paracetamol

Hartu zorro bat edo pilula bat ur baso **batez 6 orduero 7 egunez.**

AHOTIK/VIA ORAL

## Paracetamol

Tome **un** sobre o comprimido con un vaso de agua **cada 6 horas durante 7 días**

## Ibuprofeno edo Dexketoprofeno

**Lehendabiziko egunean** hartu IBUPROFENO pilula bat **gosari, bazkari eta afarian.**

Ondoren IBUPROFENOA edo DEXKETOPROFENOA hartu, medikuen jarraibideen arabera, **gosarian, bazkarian edo afarian 6 egun gehiagoz.**

AHOTIK/VIA ORAL

## Ibuprofeno o Dexketoprofeno

**El 1er día** tome **un** comprimido de IBUPROFENO en **desayuno, comida y cena**

Después tomará IBUPROFENO, o bien DEXKETOPROFENO, según pauta médica en **desayuno, comida y cena durante 6 días más.**

## Metamizol (Nolotil®)

Lehenengo egunean, aurrekoaren ondoren, min gehiago izango bazenu, hartu METAMIZOL-NOLOTIL® **pilula bat edo bi 8 orduero**, preskripzio medikuari jarraituta.

AHOTIK/VIA ORAL

## Metamizol (Nolotil®)

**Si el 1ª día**, después de lo anterior, tuviera más dolor**;** tome **una o dos** cápsulas de METAMIZOL-NOLOTIL® según indicación médica **cada 8 horas.**

## Tramadol

**Hala ere, hurrengo bi egunetan** oraindik ere min gehiago izango bazenu, hartu TRAMADOL pilula bat **zortzi orduero.**

AHOTIK/VIA ORAL

## Tramadol

**Si los 2 primeros días** y después de lo anterior, tuviera más dolor; tome una cápsula de TRAMADOL **cada 8 horas.**

## Ondasetron

Goragalea edo gonbitoa baduzu, hartu pilula bat osorik, zatitu gabe eta mastekatu gabe, 12 **orduero.**

AHOTIK/VIA ORAL

## Ondasetron

**Si náuseas o vómitos** tome **un** comprimido entero, sin partir ni masticar, **cada** 12 **horas.**

## Omeprazol edo Pantoprazol

Zure medikuak esaten badizu, mediku-errezetaren jarraibideen arabera, hartu pilula bat osorik, zatitu edo mastekatu gabe, **gosarian** 7 **egunez.**

AHOTIK/VIA ORAL

## Omeprazol o Pantoprazol

Si su médico se lo indica, según receta médica, tome **un** comprimido entero, sin partir ni masticar en el **desayuno,** durante 7 días.

## Paracetamol

- **Ekintza**: Mina (ANALGESIKOA) eta sukarra (ANTIPIRETIKOA) txikitzen duen medikamentua.
- **Kontuan hartzekoak**: sendagai hau har dezakezu jakirik gabe edo jakiren batekin, urdaileko arazoren bat baduzu, hartu jakiren batekin. Bere eraginkortasuna beti baldintza beretan hartzea aholkatzen dizugu.
  Ez da eraginkorragoa, eta ez da komeni agindutako dosia handitzea.
  Tratamenduak irauten duen bitartean, alkoholik ez edatea aholkatzen da.
- **Kontrako efektuak**: jarraibideak segituz gero, ez da ondorio kaltegarririk agertzen.

## Ibuprofeno o Dexketoprofeno

- **Ekintzak:** mina (ANALGESIKOA), hantura (ANTIINFLAMATORIO) eta sukarra (ANTIPIREKTIKOA) murrizten duen (medikamentua. Erreuma tratatzeko ere erabili ohi dena (ANTIERREUMATIKOA).
- **Kontuan hartzekoak**: hartu sendagai hau urarekin, otorduetan edo jakiren batekin, urdaileko balizko arazoak saihesteko.
  Ez hartu botika hau, ASPIRINARI alergiarik baldin badiozu.
  Urdaileko edo duodenoko ultzerarik baldin baduzu edo izan baduzu, esaiozu zure medikuari. medikamentu honekin tratamendua hasi aurretik
  Tratamendu hau hartu bitartean, ez edan alkoholik, izan ere edari alkoholdunek, urdaileko erredura handitzen baitute

## Paracetamol

- **Acciones**: medicamento que disminuye el dolor (ANALGESICO) y la fiebre (ANTIPIRETICO)
- **Consideraciones**: puede tomar este medicamento con o sin alimentos; si tiene molestias de estómago, tómelo con algún alimento. Se aconseja que lo haga siempre en las mismas condiciones para aumentar su eficacia.
  No es más eficaz ni conveniente aumentar la dosis prescrita.
  Mientras dure el tratamiento es aconsejable que no beba alcohol
- **Efectos adversos**: si sigue usted la pauta indicada, no suelen aparecer efectos adversos.

## Ibuprofeno o Dexketoprofeno

- **Acciones**: medicamento que disminuye el dolor (ANALGESICO), la inflamación (ANTIINFLAMATORIO), y la fiebre (ANTIPIRETICO). También se usa para tratar el reuma (ANTIRREUMATICO)
- **Consideraciones**: tome este medicamento con agua, en las comidas o con algún alimento para evitar posibles molestias de estómago.
  NO tome este medicamento si es usted alérgico a la ASPIRINA.
  Si usted tiene o ha tenido úlcera de estómago o duodeno, dígaselo a su médico antes de iniciar el tratamiento con este medicamento.

  Mientras tome este medicamento no beba alcohol, ya que las bebidas alcohólicas aumentan la irritación del estómago.

Ez hartu aspirinarik edo beste medikamenturik minerako. Sukarrerako edo hotzerirako zure medikuari edo farmazialariari galdetu gabe.

Ahotik antikoagulanteak hartzen ari bazara, adierazi zure medikuari.

Haurdun egonez gero, bereziki 3. Hilabetean, ekidin sendagai hau hartzea.

- **Kontrako efektuak**: ohikoak ez badira urdail-hesteetako arazoak ager daitezke (urdaileko mina, goragalea, botaka) edo buruko mina. Sintoma hauek jarraituz gero, abisatu zure medikuari.

  Urdaileko mina handia agertuz gero, edo kaka beltza eginez gero, abisatu zure medikuari.

  Eskuetan,oinetan, orkatiletan edo hanketan hantura nabarituz gero, galdetu zure medikuari.

  Beste edozein arazo agertzen dela nabarituz gero, eta medikamentu honekin zer ikusia duela uste baduzu, esan iezaiozu medikuari.

## Metamizol (Nolotil®)

- **Ekintza**: mina (ANALGESIKOA) eta sukarra murrizten duen medikamentua (ANTIPIRETIKOA).
- **Kontuan hartzekoak-.** Hartu kapsulak osorik, ireki gabe eta mastekatu gabe, jakiekin urdaileko balizko arazoak saihestu ahal izateko.

  Anemiarik edo urdail-hesteetako arazorik baduzu, galdetu zure medikuari medikamentua hartu aurretik.
- **Kontrako efektuak:** urdail-hesteetako arazoak ager daitezke (goragalea, botaka larria, urdaileko mina). Sintoma hauek iraunez gero, abisatu zure medikuari.

## Tramadol

- **Ekintza**. Mina arintzen duen medikamentua (ANALGESIKOA).
- **Kontuan hartzekoak:** hartu sendagai hau bereziki urdaila hutsik duzula. (Bazkaria baino ordubete lehenago edo bi ordu geroago).

Procure no tomar aspirina u otros medicamentos para el dolor, la fiebre y el resfriado sin consultar a su médico o farmacéutico.

Si está tomando anticoagulantes orales dígaselo a su médico.

En caso de embarazo, especialmente durante el 3$^{er}$ trimestre, evite tomar este medicamento.

- **Efectos adversos:** aunque no es frecuente pueden aparecer molestias gastrointestinales (dolor de estómago, nauseas, vómitos) o dolor de cabeza. Si estos síntomas persisten avise a su médico.

  Si aparece dolor de estómago fuerte o las heces son negras, avise a su médico.

  Si nota hinchazón de las manos, pies, tobillos o de las piernas, consulte a su médico.

  Si nota cualquier otra molestia que cree que está producida por este medicamento dígaselo a su médico.

## Metamizol (Nolotil®)

- **Acciones:** medicamento que disminuye el dolor (ANALGESICO) y la fiebre (ANTIPIRETICO).
- **Consideraciones:** tome las cápsulas enteras, sin abrir ni masticar, con las comidas o con algún alimento para evitar posibles molestias de estómago.

  Si tiene usted anemia o úlcera gastroduodenal, consulte con su médico antes de tomar este medicamento
- **Efectos adversos:** pueden aparecer molestias gastrointestinales (nauseas, vómitos y dolor de estómago). Si estos síntomas persisten, avise a su médico.

## Tramadol

- **Acciones:** medicamento que alivia el dolor (ANALGESICO).
- **Consideraciones:** tome este medicamento preferentemente con el estómago vacío (1hora antes o 2 horas después de las comidas).

Tratamenduak irauten duen bitartean ez hartu edari alkoholdunik ezta lo egiteko, depresiorako, alergietarako, griperako edo katarroetarako medikamenturik ere, aurretik zure medikuari edo farmaziagileari galdetu gabe, Tramadolaren kontrako efektuak handitu baitaitezke.

Sendagai honek logura eman dezake, horrexegatik, aholkatzen da kontuz ibiltzea gidatzerakoan edo eta makineria arriskutsua erabiltzerakoan.

Zuk medikamentuaren eraginkortasuna txikitzen dela nabarituz gero, ez handitu dosia aurretik medikuari galdetu gabe.

- **Kontrako efektuak:** logura, goragalea eta ahoa lehortzea ager daiteke.

## Ondasetron

- **Ekintza**: goragalea eta botaka ekiditen dituen medikamentua.
- **Kontuan hartzekoak**: medikamentu hau har daiteke jakiekin edo jakirik gabe, urdaileko arazoak izanez gero, hartu jakiren batekin.

  Hartu pilulak osorik, zatitu gabe eta mastekatu gabe.

  Jarraitu zehatz-mehatz zure medikuak emandako agindu dosiari eta administrazio maiztasunari dagokionez.

  Medikamentu honek logura edo eta erreflexuak murriztea ekar lezake, horrexegatik gidatzerakoan edo makinaria arriskutsua erabiltzerakoan kontuz ibiltzea gomendatzen da.
- **Kontrako Efektuak**: inoiz buruko mina, logura edo urdail-hesteetako arazoak ager daitezke. (Beherakoa edo idorreria).

## Omeprazol edo Pantoprazol

- **Ekintza:** urdail-hesteetako ultzerak tratatzeko balio duen medikamentua da, azidoaren ekoizpena murrizten duena eta urdaileko mukiak babesten dituena (ANTIULTZEROSOA).

Mientras dure el tratamiento no beba alcohol ni tome medicamentos para dormir, para la depresión, para las alergias, gripe o catarro, sin consultarlo antes con su médico o farmacéutico, ya que pueden aumentar los efectos adversos del Tramadol.

Este medicamento puede producir somnolencia, por eso, se aconseja que tenga cuidado al conducir o al manejar maquinaria peligrosa.

Si usted nota que disminuye la eficacia del medicamento, NO aumente la dosis sin consultar antes a su médico.

- **Efectos adversos**: puede aparecer somnolencia, vómitos y sequedad de boca.

## Ondasetron

- **Acciones**: medicamento que evita las náuseas y vómitos.
- **Consideraciones**: puede tomar este medicamento con o sin alimentos; si tiene molestias de estómago, tómelo con algún alimento.
  Tome los comprimidos enteros, sin partir sin masticar.
  Siga estrictamente la pauta indicada por su médico en cuanto a dosis y frecuencia de administración.
  Este medicamento puede producir somnolencia y disminuir sus reflejos, por eso se aconseja que tenga cuidado al conducir o al manejar maquinaria peligrosa.
- **Efectos adversos**: ocasionalmente, puede aparecer dolor de cabeza, somnolencia o molestias gastrointestinales (diarrea o estreñimiento).

## Omeprazol o Pantoprazol

- **Acciones:** medicamento que sirve para tratar las úlceras gastrointestinales, disminuyendo la producción de ácido y protegiendo la mucosa del estómago (ANTIULCEROSO).

- **Kontuan hartzekoak**: medikamentu hau jakiekin jakirik gabe har dezakezu. Hartu pilulak osorik, zatitu gabe, mastekatu gabe, irentsi ezazu ur baso baten laguntzaz.

  Sendagaia eraginkorragoa izateko, saiatu ez erretzen, edo edari alkoholdunez ez abusatzen, ezta kafeina dutenaz ere (Kafea, tea, kola freskagarriak, ezta saltsa minik, ezta otordu pizgarririk.

  Tratamendua irauten duen bitartean, ez itzazu beste botika batzuk hartu, aurretik zure medikuari edo farmaziagileari galdetu gabe, bereziki aspirinarik edo minerako edo hanturarako diren beste medikamenturik.

  Hobeto sentitzen bazara ere, ez utzi sendagaia hartzeari, zure medikuak agindutako denboran.

- **Kontrako efektuak**: ohikoa ez bada ere urdail-hesteetako arazoak ager daitezke ( beherakoa, haizeak, idorreria) edo buruko mina)

  Sintoma hauek denbora askoan luzatzen badira edo gogorrak suertatzen bazaizkizu esan zure medikuari.

  Abisua pasa iezaiozu ere, beste edozein sintoma agertuz gero eta botika honengatik dela uste baduzu.

- **Consideraciones:** puede tomar este medicamento con o sin alimentos. Tome los comprimidos enteros, sin partir ni masticar, tragándolos con ayuda de un vaso de agua.

  Para que el medicamento sea más efectivo procure no fumar, no abusar de bebidas alcohólicas ni de bebidas con cafeína (café, té, refrescos de cola, ni tomar salsas picantes ni comidas irritantes.

  Mientras dure el tratamiento, no tome otros medicamentos sin consultar antes con su médico o farmacéutico, especialmente aspirina u otros medicamentos para dolores o para la inflamación.

  Aunque se sientan mejor, no deje de tomar este medicamento durante el tiempo indicado por su médico.

- **Efectos adversos:** aunque no sea frecuente, pueden aparecer molestias gastrointestinales (diarrea, gases, estreñimiento) o dolor de cabeza.

  Si estos síntomas se prolongan durante mucho tiempo o le resultan muy molestos, comuníqueselo a su médico.

  Avise también a su médico si notasen cualquier otro síntoma que cree que puede ser causado por este medicamento.